

0.- SARRERA

Hona hemen bitxikeriez betetako Bidankozarteko beste zenbakia.

Espero baino askoz denbora gehiago ondoren, azkenik Bidankozeko web-orriko zaharberritzea prest dago (xehetasunak baino ez dira falta) eta hor, orain arte

zeuden edukiez gain, xurgin xasteari eskaintako egongo da eta web bizi bat izatera bideratutako atalak ere, non Bidankozeri dagozkion albisteak, argazkiak, bideoak eta abar ikusi ahal izango dira.

Zuen argazki, bideo edo weban joan ahal diren beste motako edukiak jasotzea espero dut, horrela web dinamikoago bat izateko eta bidankoztarron topagunea izateko.

Eta, orain bai, “rankatuko” gara.

1.- HISTORIA APURRAK - ERRONKARIKO GAZTELUEN HORNIDURA (1364)

Gaur egun pozik eta harro gabiltza gure inguruan gazteluak izan zirela entzuten dugunean. Duela sei mende eta erdi, Nafarroako erresumako mugak defendatzeko, gure bailaran hiru gaztelu zeuden: Pintanokoa (Burgiko lurretan), Burgikoa eta Izabakoa.

Egun, berri erakargarria iruditzen ahal zaigu, baina garai hartako bidankoztarrentzat, inguruan gazteluak izatea ez zen horren onuragarria izango.


Alde batetik, Zuberua eta Biarnoko konderri eta Aragoiko Erresumarekiko mugetan bizitzeak ziurtasunik eza ekartzen zuen, bai defentsa arloan baita osasun arloan ere (hamabost urte lehenago, 1348tik 1350ra, Nafarroan Izurrite Beltzaren lehenengo agerraldia suertatu zen, Europatik iritsita, eta ondorio ikaragarriak izan zituen: gure herrietan, populazio erdia galdu zen eta muturreko kasuetan herri osoa desagertu zen. Kontuan hartu behar dugu ere, Izurritea baino urte batzuk lehenago gosete handia egon zela).

Beste aldetik, gazteluek gudari-talde egonkorra zuten. Erronkariko populazioak gudariak elikatu eta gazteluak mantendu egin behar zituen. Horrez gain, Erresumaren Ogasuna eta Orreagako Kolejiataren zergak ere ordaindu behar zituzten.

Gauzak horrela, 1364ko udan, Nafarroako Carlos II.ak erreinuko diruzainari, Garcia Miguel de Elkarteri, agindu bat eman zion, eta honek agindua Zangozako diru biltzaileari (Pedro de Cassaver) luzatu zion. Agindu horren

arabera, Pintano eta Burgiko gazteluen mantenurako aurretik emandako garia, Burgiri, Erronkariri, Bidankozeri eta Garderi itzuli behar zitzaien.

Erresumak ezin zituen bete bere beharrak eta lau herri hauek egin behar izan zuten. Herrientzat karga izugarria zenez, gogoz kontra burutu zutela pentsa daiteke. Aurreratutakoa orain itzultzen omen zitzaien. Garai hartan, txanponak erabili ordez, zorrak kitatzeko eta zergak ordaintzeko gariak baliatzen ziren.



Baina nola? Erreinu batek ez du ezta gaztelu baten mantenua ordaintzeko ere? Honen parekoa gaur egungo gobernu batek funtzionarioen soldata ordaintzeko dirurik ez izatea izango zen (gaurkotasuneko gaia dirudi, ezta?).

Hau da arrazoia. Carlos II, Nafarroako erregea izateaz gain, Evreux-ko kondea zen (gaur egun Frantzia dago) eta Frantziako tronua eskuratu nahi zuen. Hori dela eta 100 urteko gerran sartu zen (1337-1453). Lehiakide nabarmenenak Frantzia eta Ingalaterra izan ziren baina beste erreinu batzuek ere parte hartu zuten, besteak beste, Nafarroa.

Testuinguru honetan, 1364ko udaberrian, Nafarroak eta Ingalaterrak Cocherelen (Evreux, Parisetik 100 km-tara) Frantziaren kontra egin zuten borroka. Ematen zuen liskarra Nafarroa irabazten ari zela eta frantsesek alde egiten ari zirela. Nafarrak harrotu egin ziren eta haien atzetik joan ziren. Baina Zabazak, Osasunaren entrenatzaile ohiak, esaten zuen bezala, “konfiantza hartzen dugunean oso txarrak gara”. Orduan, Frantziako sorospenak Nafarroako atzeguardiako arkulariak akabatu zituzten eta izugarriko sarraskia burutu zuten. Honen ondorioz, erregeak kanpoko politika birplanteatu zuen. Laburbilduz, futbol hiztegiarekin jarraituz, Nafarroak “Europan jokatu nahi zuen” baina zeukan aurrekontuarekin oso urrutira ezin zen heldu. Betikoez ordaindu behar izan zuten: udaberriko porrotaren ondoren, udan ez zegoen garirik gazteluetako zaindariantzat.

Garai hartan ez zegoen ez abiadura handiko trenik, ez Nafarroako zirkuiturik, ezta Navarra Arenak ere, baina, gaur egun bezala, ez zuten dirua erabiltzen nafarren ongizatea lortzeko.

2.- HEMEROTEKA - BIKARIOETXEAREN BERRIKUNTZA (1914)

Argitalpen honen lehenengo zenbakian *Eskola-Udaletxe* berriaren lanen hasieraren berri eman genuen, orain dela 103 urte izan baitziren. Hiru urte beranduago *Bikarioetxearen* txanda izan zen, apaizaren etxea, berritu egin behar baitzuten.

Garai hartako apaiza, Ausencio Jimenez (eta ez Amancio iragarkiak dioen moduan) parrokia-etxearen berrikuntzarako aukerak bildu, kudeatu eta aproposena hautatzeko arduraduna zen. Lanen aurrekontua ez zen batere mespretxagarria 2.000 pezeta baino pixka bat gehiagokoa.

Eta nondik atera zen dirua? Kontuan edukita usadioz Elizak zeukan boterea

Subasta de Obras en Vidangoz

Se admiten proposiciones en pliego cerrado, para las obras de renovación de la casa parroquial de esta villa, hasta el día 25 del corriente y hora de las once de su mañana bajo el presupuesto de 2.056 pesetas condiciones y plano que obran en poder del Sr. Párroco.

Las solicitudes en pliego cerrado a fi-cho Sr. Párroco quien se reserva el derecho de aceptar la más ventajosa ó rechazarlas todas.

**Vidangoz 12 de Julio de 1914.
Amancio Jiménez (Párroco.)**

(baita ekonomi mailan ere), Apezpikutzaren gauza zela eman zezakeen... Bada, berriz ere hemerrotekara

itzuliz, 1914ko apirilaren 22ko Diario de Navarra Diputazioaren akordioa jasotzen da non Bidankozeko Udalari baimena ematen dion 2.000 pezetekin apaizaren etxe berria eraikitzen laguntzeko. Kontuan izanda lanaren aurrekontua, laguntza eman baino ordaindu esan beharko luke, izan ere Udalak eta, ondorioz, herriak lanen % 97,28 ordaindu zuen (eta gainontzeko 56 pezeta diru-bilketetatik etorriko lirakeke).

100 urte beranduago, *Bikarioetxea* erortzeko zorian... eta Apezpikutza ia duela 100 urte eroritako baselizak bere egiten. Laburbilduz, beste behin ere, "etsenpluaren bidez predikatzen".

3.- BITXIKERIAK - 1964ko ENDONE PETRIko XEIEEN EGITARAU

Orain dela 50 urte, ekainaren amaieran, Bidankoze Endone Petriren omenezko xeiak hastear zeuden. Garai hartan jada jaien egitaraua egiten zen eta, Juanko etxean gordetzen duten ale bati esker, antzinako xeiak xehetasun gehiagorekin zertan zeutzan jakin dezakegu: xeiatako 4 egumetan zehar garrantzitsuen erlijiosoa zen: bezperak, meza handia bi egumetan eta patroia egumean, eta honez gain, prozesioa. Baina musikarentzat lekurik ez zela falta ikusten dugu (dianak, eguerdian, arratsaldean eta gauean, sortuko ziren errondaila espontaneoek gain), ezta dantza eta kirolarentzat: sokatira, aizkolariak, bizikleta lasterketa, eta nola ez, pilota, non beti agerian zegoen herrien arteko lehia edota ezkongabe eta ezkonduen artekoa.

Eta bukatzeko, kontzertuaz eta haurrentzako atrakzioez gain, azpimarragarria da egunero su artifizialen bilduma bat erretzen zela, ordurako gertaera garrantzitsua izango zelarik.

ENDONE PETRIko XEIEEN EGITARAU (1964ko GARAGARZOA)

Ekainaren 28an

- 12etan, xeiak iragartzen duen txupinazoaren jaurtiketa eta kanpai-hots orokorra.
- 18etan, bezpera handiak.
- 7etatik 10etara eta 12etatik goizeko 2etara, dantzarako musika. 10etan, Udaletxe Plazan su artifizialen bilduma bat erreko da.

Ekainaren 29an

- Goizeko 9etan, Musika Banda diana alaiagarriekin herriko karraketan zehar ibiliko da.
- 12etan, Meza Nagusia. Gorespen-hitzaldia Aita Kaputxino baten esku egongo da.
- 13etan, kontzertua eta haurrentzako ikuskizunak.
- Arratsaldeko 5etan: Bihotz Sakratuaren irudiaren prozesioa.
- 7etan, Bidankoze eta Urzainkiren arteko pilota partida.
- 8etatik 10etara eta 12etatik goizeko 2etara, dantzarako musika. 10etan su artifizialen bilduma bat erreko da.

Ekainaren 30ean

- 9etan Dianak.
- 11etan Meza Nagusia.
- 12etatik 14etara, kontzertua
- Arratsaldeko 18etan, kirol demak, bizikleta lasterketa, sokatira, aizkora apustuak, etab. irabazleentzako opari eta guzti.
- 20etatik 22etara eta 12etatik goizeko 2etara, dantzarako musika.
- Aurreko egumetan bezala, su artifizialen bilduma.

Uztailaren 1ean

- 9etan dianak
- 11etan, kirol norgehiagokak.
- 12etatik 14etara kontzertua.
- Arratsaldeko 18etan, herri mailako pilota partida, bi gazte bi ezkonduen aurka.
- 20etatik 22etara eta 12etatik goizeko 2etara, dantzarako musika. Ondoren, jaien amaiera "Gaixoa ni"-rekin.

OHARRA: Gaur ezkonduen eguna ospatzen denez, gainontzeko ospakizunak bere kontu izango dira.

4.- OIKONIMIA (ETXEEN IZENAK) - MONTES / GARÍN ETXEA

Egullorre auzoan amaiera ematen diogu Bidankozeko etxeen izenen hirugarren birari. Oraingo honetan egokitzen zaigun etxea, azken aldian *Montes* deituriko etxea, jada existitzen ez dena, *Xoko* etxearen alboan etxeari zegokion lur saila besterik ez da geratzen eta artikulua honetan erantsia doan argazkian, 1958. urtekoa, etxea nolakoa zen atzeman daiteke ikuspegi partzial batekin.

Argazkia berez, Venancio eta Trinidad Montes Fuertes anai-arreben ezkontza bikoitzaren egunari dagokio, ospakizun egun berberari hain zuzen ere.

Montes Fuertes sendia izan zen etxe honetan bizi izan zen azkena. Ostean eta eraitsi aurretik, denbora labur batez *Bidankozeko Ehungintza Kooperatibak* erabili zuten, beranduago *Malkorna* etxera lekualdatuz.

Montes Fuertes sendia baino lehen, 1910eko hamarkadaren amaieran eta 1920koaren hasieran eta denbora labur batez, Jimeno Mendigatxa sendia bizi izan zen etxe hartan. Benetan etxean bizi izan zirenak Amalia Mendigatxa Mainz (*Bernabé*) eta bere seme-alabak, Irene eta Bernardino, izan ziren. Amaliaren senarra, Doroteo Jimeno (*Llabari*), matrikula liburuek adierazten dutenez, ez zen bertan bizi, ez dakigu ziur atzerrira, Ameriketara edo Frantziara alde eginda; kontua da Bidankozen ez zegoela.

Ikusten denez, bikote honetako senar-emazteak ez ziren berez etxe hartakoak. Hortaz, nola "*erori*" ziren etxe hartan?

Sendia berez, *Llabari* etxean bizi zen. Eta hemen hain zuzen ere, etxearen historiaren alde iluna iristen da. Jimeno Mendigatxa sendiak 1918. urtearen hasieran Jacinto Garin Benedeti erosi zion etxea, etxearen aurreko jabea eta beranduago hitz egingo dugunaz. Jacinto, adineko gizon alargun bat zen, Bidankozen bakarrik gelditu zena (bere alabak kanpoan zeuden), eta bere egoera ikusita, etxea saltzea erabaki zuen bere azken egunak Iruñeko *Hermanitas de los Pobresen* amaitzeko. Honaino dena normal.



Gauza da, Jacinto salerosketaren bat egitera edota "*Hermanitas*"etan bere sarrera negoziatzera Iruñera zihoala, ezkonsari edo dote baten truke modukoa egiteko, eta bidean dirua ez galtzeko asmoarekin, mila pezeta eta soimean eramango zuen alkandora Amalia Mendigatxari eman zizkion (azken honek etxea erosi berri ziona), bertako poltsikoa josi eta ondo itxi zezan, ostean dirua bertan eramateko. Eta Jacinto gaixoa Iruñera iritsi eta dirua ateratzera zihoala, egunkari paperak besterik ez zituen topatu. Ostean, epaiketa etorri zen, baina hau beste egun baterako utziko dugu.

Honen ondorioz, Jimeno Mendigatxa senar-emazteek etxearen erdia galdu zuela (Amalia Mendigatxari irabazpidezko ondasun gisa zegozkionak), baina hala eta guztiz ere ama eta bere bi seme-alabek 1919 eta 1921 urte bitartean bizi izan ziren etxe hartan, Amalia 32 urte besterik ez zuela zendu zen arte.

Historia izugarri hau utzita, itzuli gaitezke etxearen ondorengo jabetogara. Esaten genuen bezala, aurreko jabea Jacinto Garin Benedet izan zen, sortzez Pintanokoa (Aragoikoa), baina Francisca Pascualena Salvoch (*Aizagar/Garin*) bidankoztarrarekin ezkontua. Etxe honetako Jacintorengatik hain zuzen, etxea *Garin* deitzen zen, beranduago *Montes* etxea bezala ezagutu zena. Garin Pascualena sendia, eliz barrutiko matrikuletan 1892. urtetik etxe hartako bizilagun gisa ageri da. Data horren aurretik, eta gutxienez 1861. urtetik, etxea ez da bizilagunekin ageri.

Aurreko garai hartaz, eta etxea noiz eraiki zen jakin gabe, nahiz eta etxea berri samarra dela uste, aztarna moduan etxearen aitzinako izena besterik ez zaigu geratzen: *Murri* Etxea, Crisanto Paskelek (*Paske*) eta Valentina Landak (*Arriola/Landarna/Llabari*) aipatutakoa. Izena, etxeko biztanleren baten goitizenetik hartuko zuen ziurrenik, ez dakigu Jacinto Garin edo aurreko besteren batetik. Nola edo hala, "*murri*" euskaraz eskasa esan nahi du, hortaz, murri deitzen zioten horri, gaur egun zuhurra edo doilorra zenari deituko zioten, betiere ahalik eta gutxien erabili/gastatu nahi zuena.

Montes etxea, *Garin* etxea edo *Murri* etxea, historiari beteriko etxea.

5.- HIZTEGI BIDANKOZTARRA - BASA-UGAZTUN ETA HEGAZTIAK

Aurrekoetan ardi-azienda zein behi-azienda zegoen hiztegia ikusi dugu. Oraingoan baso aldera joko dugu, basoko ugaztun eta hegaztien izenak ikusteko asmoz. Hurrengo baterako ur-animalienak, narrastienak, intsektuenak eta abar geratuko dira.

UGAZTUNAK

Añari: Saguzarra;
Basari: Azeri;
Basurde: Basurde;
Cerdoso: Basurde;
Fornaca: Erbikume;
Fuina: Lepazuri;
Gazapo: Untxikume;
Paniquesa: Erbinude, ogigazta;
Rayón: Basurdekume;
Tajudo: Azkonar;

HEGAZTIAK:

Becada: Oilagor;
Burbute: Argi-oilar;
Cabrero: Hontz;
Pajarico: ?????;
Papigutti: Txantxangorri;
Picaraza: Mika;
Tordo: Zozo;
Txitxipan: Urretxindor;

6.- TOPONIMIA (LEKUEN IZENAK) - ZELEIA

Gaur aztertuko dugun lekuizena herritik iparralderantz 2 kilometrotara dagoen toki bat izendatzen du, eta aski ezaguna da: *Zeleia*.

Zeleia dermioaren gehiena *Ekinineako* edo *Uztarrotzeko* mendibidetik mendebalderantz (igotzen, ezkerrean) geratzen da, eta hurrengo toki hauekin du muga: Iparrean *Bizkaiterekin*; Hegoaldean *Atsagarbia* eta

Ibarrandia; Ekialdean *Barrenzaltua* eta *Arañir*; eta Mendebaldean *Zelaigibelea*.

Toponimo honen jatorria ez du zalantzarik uzten, eta *Zeleia* “*zelaia*” euskal hitzaren aldaera baino ez da, eta berez “*zelaia*” edo “*lursail laua*” du esanahi. Kasu honetan, adiera egokiena lehenengoa dirudi, Bidankozeko udal-barrutian “*toki laua*” aurkitzea zaila da.

Dermio honen zera aipagarri, eta hau ugaltzara iristen den tokian, Crisanto Paskerek (*Paskeñ*) *Zeleian* almadien atadero bat zegoela esaten zuen, *Biniés ugaltzatik* jaisten ziren almadiak “muntatzen” ziren tokietako bat.

7.- MARIANO MENDIGATXAREN GUTUNAK (ARTURO CAMPIÓN)

Oraingo honetan Mariano Mendigatxak bere 1904ko martxoko gutunean politikari buruz adierazitako xehetasuna.

Marianok orduan ospatu berri ziren foru diputatuak aukeratzeko hauteskundeak aipatzen ditu (1904ko urtarrila). Penatuta azaltzen da, izan ere, berak ahalegin guztiak egin zituen arren, Arturo Kanpion jauna ez zen hautatua izan;

ulertu daitekeenez berarekin hizketan dagoen Resurreccion Maria de Azkueren gustokoa ere bazen. Arturo Kanpionek idatzi ziola ere aipatzen du, baina ez ziola erantzunik eman atsekabetuta egongo zelakoan bere helburua lortu ez izanagatik. Litekeena da Kanpion eta Mendigatxaren arteko erlazioa lehenagotik etortzea, izan ere, 1878an Marianok, Kanpionek euskalki gipuzkoarran idatzitako “*Orreaga*” balada Bidankozeko uskarara itzuli baitzuen.

Hauteskunde horietan hiru hautagai zeuden, bakoitza ildo politikoko batekoa gutxi gora behera: Arturo Kanpion

(Integrista), Juan Vazquez de Mella (Karlista) eta Pedro Gartzia Garamendi (Kontserbadorea).

Arturo Kanpion, berez, ez zen inongo alderdiko kidea, eta Karlismotik banandutako ildo

Integristarekin erlazionatzen bazitzaion ere, foruen aldeko ideiak defendatzen zituen (1893.ean Foruak desegin nahi izan zituen eta Nafarroan altxamendua eragin zuen Gamazo ogasun ministro espainolaren aurkako protestan, pertsonai garrantzitsua izan zen),

katolikoa eta euskal abertzaletasunaren aldekoa; bere leloa (bere lan literario guztietan agertzen zena) “Euskalerrriaren Alde” zen.

Juan Vazquez de Mella Karlismoaren hautagaia zen; ideologia honek babes asko galdu zituen azken guda Karlismaren ondoren (1872-1876), baina 1904rako ondo berreskuratu zituen hautesleak. Karlismoaren ideiak horrela laburbildu daitezke: “Jauna, aberria, foruak eta erregea”.

Pedro Gartzia Garamendi alderdi Kontserbadorearen hautagaia zen. Partidu

hau orduan Liberalismoarekin elkartu zitekeen, nahiz eta katolizismoa ere defendatzen zuen. Kontserbadore nafarren artean aristokratik, profesional liberalak eta merkatariak zeuden.

Hurrengo hauteskundeetan gertatuko zenaren aldean, momentu horretako bozetan botoa oso banatuta egon zen. Eta pentsatu daiteke ohiko gauza zela, baina bailarako beste herrietara begiratuta, ikusi daiteke Marianok ahal izan zuen guztia egin zuela Arturo Kanpion aukeratuta atera zedin. Izan ere, Kanpionek Bidankozen 27 boto (%42,86) lortu zituen, Garamendik 19 (%30,16) eta Vazquez de Mellak 17 (%26,98). Uztarrozen, Izaban, Urzainkin eta Erronkarin Garamendik irabazi zuen erraz. Burgin Vazquez de Mella eta Garamendi oso berdinduta ibili ziren, baina lehendabizikoak irabazi zuen. Eta azkenik Garden, Bidankozen bezala, Kanpionek irabazi zuen eta bozak oso banatuta egon ziren.

Mariano saiatu zen hautagai euskaltzalearekin, kidetasunagatik, baina ez zuen lortu, Vazquez de Mella hautagai karlistak erraz irabazi baitzuen Nafarroan. Beharbada, horregatik ikastetxe batek darama honen izena eta Kanpionena, berriz, euskaltegi bat baino ez... Baina 1904ko Bidankozen, behintzat, Arturo Kanpionek garaipena lortu zuen.

8.- BUKAERA

Eta honaino 12. zenbaki honen edukiak. Hurrengoan, askoz gehiago: 1939an, espetxeratutako bidankoztar “gorri” bat eta frankismoren presoen etorrera; Irene Pérez

Goienetxeren (*Diego*) erahilketa Kongon; *Montxonena* etxea; *Txurrusta...* eta sartzen dena.

Hau guztia 2 hilabete barru, San Agustinen. Ordurarte, bada, uda on izan.

LAGUNTZAILE:

AYUNTAMIENTO
DE LA VILLA DE
VIDANGOZ



BIDANKOZEKO
AIZA BULGUA